

ASTE NAGUSIA²⁰²² SEMANA GRANDE

2022ko Aste Nagusirako prestatutako egitarauak bere funtsa berreskuratuko du, bi urteko nahitaezko geldialdiaren ondoren.

Kanoikadak zortzi jaieguni hasiera emango die, eta, ziur aski, programaz goatzera animatzen diren pertsona guztiek gustuko jardueraren bat aurkituko dute, aktiboki edo pasiboki parte hartu ahal izateko.

Aurten ere erraldoiak eta buruhandiak, zezensuzkoak, su artifizialak, kontzertuak, kirol jarduerak, kale antzerkia, txarangak, dantza taldeak, herri kirolak, food truckak, artisautza, festa zalapartaz beteko dituzte gure hiriko kaleak.

30 izango dira aurten Aste Nagusiak bere jarduerak garatuko dituen guneak. Boulevardeko Plaza. Konstituzioa, Sagues, Alderdi Eder, Aieteko Jauregiko lorategia, Loiolako Erriberak eta Urumea ibaia batuko dira aurten.

Gainera, egitarauak hainbat jarduera berri eskainiko ditu, besteak beste, Kursaalaren atzealdean jarriko den ur-txirrista, reggaeari eskainitako eguna, Konstituzio plazan nazioarteko folklorea edo Uliako Harria harri-jasotzaile emakumezkoen proba.

Eta 2019ko Aste Nagusiko nobedaderik arrakastatsuen izan zena berreskuratuko dugu: Boulevardeko holi festa.

Era berean, gure planeta zaintzearen beharraz kontzientziazteko jarduerak egingo dira, gure hiriko gune esanguratsuenetan (Urgull mendia, Nautikoa eta Urumea ibaia) bilketa eta garbiketa ekintzak eginez.

Laburbilduz, aurten ere, gure Aste Nagusiak aukera emango dio, hala nahi duenari, aire zabalean goatzeko jende guztiarengana iritsi, aldi berean, gure inguruko herri-kultur sareari laguntzeko egitarau askotariko, zabal eta atsegin batez.



JARDUERA AIPAGARRIAK

::: DAN-TZ POINT AIETEN

Eguna: Abuztuak 13

Ordutegia: 19:15 - 22:45

Kokapena: Aiete jauregiko lorategia

Dantz Point-ak espazio eta leku enblematikoei balioa ematea helburu duten ekintza artistiko eta kulturalak dira. Tokiko, estatuko eta nazioarteko eragina duten musika elektronikoko eta abangoardiako saio presentzial eta digitalen bitartez.

Aste Nagusiari hasiera musika elektronikoaren erritmoan emateko, Aiete jauregiko atzealdeko lorategian 4 DJen emanaldia izango dugu lehen arratsalde-gaua girotzeko.



::: GAZTE NAGUSI HOLI FEST

Eguna: Abuztuak 13

Ordua: 19:20

Kokapena: Boulevard (Udaletxeko Pilato Balkoiaren azpiko agertokia)

Aste Nagusiaren azken edizioan lehenengo Gazte Nagusi Holi Fest izan zen, eta lortutako arrakasta ikusita, aurten ere gazteei (14 eta 22 urte bitartekoak) zuzendutako festa hau errepikatuko dugu. Horrela emango diogu hasiera jai-egitarauari kanoikadaren ondoren.

Oihan Vega DJa, eta Lorea Intxausti (Goazen) izango dira festaren dinamizatzaileak, festa ezberdin bat bizitzera datozen gazte guztiak dantzan jarriko dituzte, berdintasunean, alkoholik gabe, erasorik gabe eta errespetu gabeko edo larderiazko jarrerarik gabe.

Helburua argia da: kolore biziz ahalik eta gehien zikintzea, dantzatzea, abestea eta jaien hasieraz gozatzea.



Festan zehar, parte-hartzaileek kolore ezberdinetako hautsak botako dituzte airera, baita beren buruari edo lagunei ere, musikarekin batera dantzatzen duten bitartean. Dibertsio, kolore, ur eta musika gudua izango da, ikusgarria, magikoa eta ahaztezina.

Hainbat “Holi une” egongo dira festan zehar eta, horietan, atzera zenbaketa batek adieraziko die parte-hartzaileei noiz bota behar dituzten beren Holi hautsak airera.

Festan botatzen diren hautsak erraz garbitzen dira eta ez dira azalarentzako kaltegarriak. Hala ere, eguzkitako edo uretako betaurrekoak eramatea gomendatzen da, baita ilea estaltzea ere, txapel, ileorde edo zapi baten bidez.

Koloretako hautsez lohitziaz gain, festaren ondoren urezko “mahuka” egiteko aukera dago, hiriko **suhiltzaileen** laguntzari esker.

BMk, bere aldetik, mokadu bat eskainiko du partaideentzat, eta doan banatuko da festaren amaieran, indarrak hartzeko.

Oharra: Ez baduzu zikinduta amaitu nahi, ez pasa Boulevardetik 19:15etik 21:00etara bitarte. Erabili beste bide batzuk Alde Zaharrera joateko: Kontxako Paseoa edo Elkano-Boulevard Oinezko bidea.

::: HERRI KIROLAK

ULIAKO HARRIA

Eguna: Abuztuak 13

Ordua: 19:15

Kokapena: Trinitate plaza

Antzina-antzinatik, Euskal Herriak bere indarra probatu du harriekin. Horretarako, eskura zituenak erabiltzen zituen: harrobiko harkaitz zati bat edo itsas bazterreko edo ibaiko errekarri bat.

Tradizio horri jarraituz, Donostia/San Sebastián Festak unitateak harri obalatu bat aukeratu zuen, duela hogeita hamalau urte, Abuztuko larunbat batean urtero egiten den lehiaketaren xede gisa. Harria, 134 kg-koa, Igeldoko itsasertzean zegoen, itsasoaren ondoan, eta hortik datorkio izena: **Igeldoko Harria**.

Lehiaketa hau gizonezkoena baino ez da izan, batez ere harriaren egitura, bolumena eta pisua zirela medio eta emakumezkoen modalitatean antzeko proba bat egiteko kirolaririk ez zegoelako.

2021ean, Donostia Festak Gipuzkoako Herri Kirol Federazioari antzeko harri bat (irregularra eta manipulatu gabea) bilatzeko eskatu zion, emakumezkoen modalitateko proba berdinerara egokitu ahal izateko.

Horrela sortu zen **Uliako Harria**, harri irregularra eta manipulatu gabea, 70 kg-ko pisukoa, Uliako itsaslabarretatik atera zutelako izena hartzen duena, gure emakume kirolarien artean ere harri-jasotzearen sustapen eta hedapenaren mesedetan.

Emakumeen kirolari bultzada berria ematea Festak unitatetik, zabaltzeko eta gehiago garatzeko ikusgarritasuna emanez

PARTE-HARTZAILEAK

IZENA	HERRIA
ARRANZ FERNANDEZ, Raquel	Donostia – GI
BLANCO GRANJA, Marina	Palencia-PA
ESNAOLA ALDALUR, Olaia	Azpeitia – GI
GISASOLA ZENIKAZELAIA, Karmele	Mallabia - BI
OSA ECHAVE, Lierni	Zarautz – GI
OSTOLAZA ETXABE, Udane	Orio - GI
SANCHEZ ALDAZ, Aroa	Orio - GI
ZINKUNEGI HERNANDEZ, Ane	Usurbil – GI
ZUMETAELICEGUI, Naiara	Errenteria - GI
ZUMETA GOIKOETXEA, Ainitze	Zarautz - GI

Uliako Harriarentzat ezarritako sariak Igeldoko Harriarekin parekatuta daude:
1.: 800 € - 2.: 600 € - 3.: 500 € - 4.: 350 €.

IGELDOKO HARRIA

Eguna: Abuztuak 13

Ordua: 19:15

Kokapena: Trinitate plaza

PARTE-HARTZAILEAK

IZENA	HERRIA
AZPIAZU LARRAÑAGA, Paulo	Oñati – GI
EIZMENDI MANTEROLA, Jokin	Zarautz - GI
ETXEBERRIA IKUTZA, Gorka	Orio – GI
LOPETEGI GEREKA, Mikel	Zarautz – GI
OLAIZOLA ARIZTI, Xabat	Zarautz – GI
TELLERIA ALMORZA, Beñat	Lasarte - GI

URREZKO KOPA / COPA DE ORO

Eguna: Abuztuak 15

Ordua: 19:30

Kokapena: Trinitate plaza

Uztailaren 16an egindako sailkatze proban denborarik onena lortu duten bost aizkolariek hartuko dute parte Urrezko Kopan.

PARTE-HARTZAILEAK

IZENA	HERRIA
ALBERDI ZINKUNEGI, Julen	Azkoitia - GI
ATUTXA GARTUBAI, Aitzol	Dima - BI
EZPELETA, Hodei	Eibar - GI
LARRAÑAGA ELGARRESTA, Mikel	Azpeitia - GI
VICENTE SARAILEGI, Iker	Ochagavia - NA



::: HIRIKO URETAKO TXIRRISTA

Eguna: Abuztuak 15

Ordutegia: 11.00-13:00 eta 15.00-20:00

Eguna: Abuztuak 16

Ordutegia: 15:00-20:00

Kokapena: Kursaaleko Zurriola terraza

Festa berritzailea, dibertigarria eta freskagarria!! Adin guztietako pertsonentzat egokia.

Jauzi 100m-ko uretako txirristan behera!!



IFK-CIF 02005411

Ekitaldia animatzeko eta behar bezala garatzeko bereziki prestatutako monitoreak. Argazkiak, bideoak, jokoak... eta askoz gehiago!

::: ERRALDOIEN TOPAKETA ONDARE ETA BIDASOALDEKO ERRALDOIEKIN

Eguna: Abuztuak 15

Ordua: 18:00

Erraldoi eta buruhandiak ez dira bakarrik egongo abuztuaren 15ean, Ondare eta Bidasoaldeko lagunen bisita jasoko baitute. Talde osoak ibilbide hau egingo du:

18:00etan Buruhandien jaitsiera Abuztuaren 31 kaletik eta irteera San Telmo museotik (Abuztuaren 31).

Ibilbidea: Abuztuaren 31, Narrika, Boulevard, Erregina Erregeordea, Zurriolako zubia, Zurriola pasealekua, Ramon y Cajal, **Katalunia plaza**, Ramon y Cajal, Zurriola pasealekua, Zurriolako zubia, Erregina Erregeordea, Boulevard, San Juan, Fermin Kalbeton, Narrika, Abuztuaren 31 (San Telmo museoa).



Donostiako erraldoi eta buruhandiak



Ondareko erraldoiak



Bidasoaldeako erraldoi eta buruhandiak

::: NAZIOARTEKO FOLKLOREA KONSTITUZIO PLAZAN

Egunak: Abuztuak 14 - 19

Ordua: 20:00

Kokapena: Konstituzio plaza

Edizio berezia aurtengoa, bertako gure dantza taldeekin bertako folkloreaz gozatzeaz gain, nazioarteko taldeekin gozatzeko aukera izango dugu, hala nola Ukrainako GORLYTSIA folklore taldearekin eta MÉXICO LINDO Mariachiarekin, MÉJIKO BALLETEKIN batera.

Eguna: Abuztuak 15

Gorlytsia folklore taldea - (Ukraina)

Gorlytsia folklore taldea duela 30 urte sortu zen Kamenets-Podilski hiriko Gazte Sormen Zentroan, Podílie eskualdean, non tradizio eta aberastasun folkloriko handia dagoen.



Adin ezberdinetako 100 dantzari gazte baino gehiago ditu, eta Ukrainako Podílie, Hutsulia eta Zakarpacie eskualdeetako dantza eta abestien errepertorioa du.

Lehiaketa askotan saritua izan da taldea, eta birak egin ditu Europako hainbat herrialdetan (Bulgaria, Polonia, Alemania, Frantzia, Espainia).

Dimitriy Nazarenko zuzendariak sortzen ditu koreografiak, errepertorioak diseinatzen ditu eta taldearen estiloa markatzen du.



45 dantzarik eskainiko digute Abuztuaren 15eko 20:00etan aurreikusita dagoen ikuskizuna, Konstituzio Plazan.

Eguna: Abuztuak 18

México Lindo mariatxia & Leyendas de México ballet folklorikoa

Mexikotik etorriak, udara honetan gure artean Mexico Lindo mariatxi taldea, 12 partaidez osatuta dago: 10 musiko eta abeslariak: 3 bibolin, 2 tronpeta, gitarroi 1, bihuela 1, 2 gitarra eta abeslari bat. Hauen ikuskizuna Mexikoko estatu desberdinetako gaiez osatuta dago (Veracruz, Nuevo León, Jalisco,...)



Mexico erdialdeko Irapueto eta Salamankakoak (Guanajato, Mexico) dira, musiko eta abeslari onak. Denok korridoak, guapangoak, rantxerak, baladak, betidanik gustokoak izan ditugun abestiak eta jendeak entzun nahi dituenak abestuko dituzte. Beraien musika eta dantzekin Mexikoko alaitasuna ekarriko digute.

Leyendas de México ballet folklorikoko bikote baten dantzak osatu eta borobilduko dute emanaldia



Aste osoko egitaraua honako hau da:

ABUZTUAK 14

20:00 GOIZALDI dantza taldea

ABUZTUAK 15

12:00 ARKAITZ dantza taldea

20:00 GRUPO FOLCLÓRICO GORLYTSIA de UCRANIA

ABUZTUAK 16

20:00 GERO AXULAR dantza taldea

ABUZTUAK 17

20:00 ESKOLA dantza taldea

ABUZTUAK 18

20:00 MÉXICO LINDO MARIATXIA & LEYENDAS DE MÉXICO BALLET FOLKLORIKOA

ABUZTUAK 19

20:00 VOCES DEL EBRO, Nafarroako jotak

::: URUMEA JAI GIROAN

Egunak: Abuztuak 15, 17, 18 eta 19

Kokapena: Urumea ibaia

Arrauningen eskutik, lau egunez Urumea ibaiaz gozatuko dugu, hurbiletik ezagutuko dugu bisita gidatuekin, eta hura zaintzen, errespetatzen eta garbi mantentzen ikasiko dugu.

Abuztuaren 15ean, 11:00etan, "Erreka Mari Urumean", zuzeneko antzerkiaz gozatu ahal izango dugu aldi berean ibaiaren garbiketa burutuz.



ABUZTUAK 15

11:00-12:30 "Erreka Mari Urumean" Antzerki bizi emanaldia eta ibai garbiketa
Laguntzailea: Arrauning.

ABUZTUAK 17, 18 ETA 19

16:00 BISITA GIDATUAK kanoan Urumea ibaian zehar.
Laguntzailea: Arrauning.

Jarduera hauetan adingabeek heldu batekin batera parte hartu behar dute.

Zure ontziarekin garbiketari laguntzera hurbil zaitetzke.

Ontzirik ez baduzu, izena eman beharko duzu eta plazak mugatuak dira.

::: REGGAEARI ESKAINITAKO JARDUNALDIA

Eguna: Abuztuak 19

Orduario: 11:30 - 02:30

Kokapena: Kursaaaleko terrazak

Gure hirian reggaeak oso harrera ona izan du beti jaietan. Aste Nagusiko eszenatoki musikal nagusian, Saguesen, portuan edo Ondarretan, Australian Blonde, Yassa, Dr. Deslay, Dongwash, Cañaman, Jah 'sta, Desacato Dada edo The Wailers bezalako reggae taldeak ikusi dira.

Aurten, Aste Nagusiko ostiralean, reggaearen koloreak hartuko ditu festak, Sagueseko agertoki nagusian Green Valley egongo da eta Kursaaaleko terrazetan, gainera, bertako eta kanpoko artisten ekoizpenekin gozatu ahal izango dugu.

Hona hemen **egitaraua**:

11:30-13:00 Soinu ekipo artisau baten erabilera eta funtzionamenduaren inguruko **hitzaldi-tailerra** Kram (Marc Perales) Dub Soul sound system-eko kide sortzailearen eskutik.

Hurrengo puntuak garatuko ditu:

- Soinuaren inguruko zientziaren oinarri teorikoa.

- Ekipoaren inguruko alderdi teknikoak.

- "Sound system" ekipoaren erabileraren azalpena era praktikoan.

[Kursaaaleko Zurriola Terraza](#)

13:00-20:00 **Reggae saioa**. Parte-hartzaileak: Dub Soul Sound System (full crew) + Bassque Reggae Kultur

Dub Soul Sound System

2015an sortu zen Bartzelonan eta haien 6 subgrabeko ekipo artisaua dakarte. Reggae jamaikarra eta europearra jorratzen dituzte haien saioetan, zuzeneko "dub" nahasketak, abeslariak eta instrumentuak nahastuz. Biorritme eta Poble Nou Goes Reggae bezalako jaialdietan parte hartu dute, eta antolatzaileak dira ere Soul Warriors izenpean. Kram selektorea buruan, Monkey Warrior eta beste selektoreak ere badatoz instrumentuekin: Weedax eta Java ahotsetan, Jah Wind saxofoian eta Pedro perkusio eta txirulan.

Bassque Reggae Kultur

2018tik Gipuzkoan eta Euskal Herrian reggae musika sustatzen ibili da elkarte hau: Ekitaldiak antolatuz, jaialdietan parte hartuz (Olatu Talka, Atlantikaldia, jai herrikoiak...), tailerrak eta bestelako edukiak eskainiz... Elkarteko kideak estilo guztietako reggae musika jartzen eta kantatzen egongo dira, festa girotzen.

[Kursaaaleko Zurriola terraza](#)



20:00-21:45 **Reggae kontzertua.** Parte-hartzaileak: George Palmer & Well Charge Band

Donostian sortutako bi reggae proiekturen arteko uztarketa bat da.

George Palmer nazioarteko reggae abeslariak beste abesti ezagunenekin batera, Irie ltes zigilu frantsesak ekoiztutako eta 2022ko ekainan argitaratu den album berria aurkeztuko du. Well Charge taldea 14 urteko ibilbidea, 2 LP eta hainbat single kaleratu dituen Tacumah Reggae Band taldetik sortu den "backing band" proiektua da.

Formazio honek jamaikar musikako standard erritmo ezagunez jositako show dinamiko eta dantzagarri bat eskaintzen du, estilo anitzak zeharkatuz (rocksteady, roots, dancehall...).

[Erizainen plaza \(Kursaal\)](#)



21:45-22:45 **Reggae saioa.** Parte-hartzaileak: Dub Soul Sound System (full crew) + Bassque Reggae Kultur

[Kursaaleko Zurriola terraza](#)

23:30-02:30 **Reggae saioa.** Parte-hartzaileak: Dub Soul DJ set + Bassque Reggae Kultur

[Erizainen plaza \(Kursaal\)](#)



::: KATALUNIA PLAZA HAURREN JARDUEREN GUNE NAGUSI BIHURTUKO DA

Aurten, Katalunia plazan bilduko dira haurren gozamenerako programatutako jarduera gehienak, eta egunero 21:30etarako bukatuko den ordutegiarekin.

Formatu eta eduki desberdineko jarduerak, adin desberdinetako pertsonak parteka ditzaketenak, batzuk parte-hartzaileak, beste batzuk ikustekoak.

Puzgarriak, haurrentzako antzerkia, bizikleta eta patinen jai martxa, erraldoi eta buruhandiak, egurrezko jolasak edo esgrima.

Eguna: Abuztuak 14, igandea

BIZIKLETA ETA PATINETAN JAIGIRO MARTXA

Ordua: 11:00

Hartu bizikleta edo patinak eta animatu igande goiz dibertigarri bat pasatzera Donostiako kaleetan zehar, ibilbide osoa girotuko duen musikaren erritmora. Adin guztietako jendearentzat, kirola egiten tarte atsegina igaro nahi dutenentzat.



Ibilbidea

Katalunia plaza-Zabaleta, Galtzada Nagusia, Zurriola hiribidea, Zurriola zubia, Erregina Erregeordea, Boulevard, Hernani, Askatasunaren hiribidea, Urbieta, San Martin, Kontxa pasealekua, Matia kalea, Karmelo Etxegarai, Sert plaza, Resurrección María de Azkue, Elias Salaberria, Europa plaza, Tolosa hiribidea, Zumalakarregi hiribidea, Kontxa pasealekua, Zubietta, Easo, Askatasunaren hiribidea, Santa Catalina, Euskadi plaza, Francia pasealekua, Federico García Lorca pasealekua, Mundaiz zubia, Gernikako arbola pasealekua, Foru pasealekua, Argentinako Errepublika pasealekua, Zurriola zubia, Zurriola hiribidea, Galtzada Nagusia, Zabaleta- Katalunia plaza

PUZGARRIAK

Ordua: 11:30-14:30 + 15:30-20:30



Salto egin, gora igo eta puzgarrietan gozatu. Erantzi oinetakoak eta gozatzera!!

EGURREZKO JOKUAK

Ordua: 16:00 – 19:00

Jolas erraldioen arratsaldea, jolasteko, ondo pasatzeko eta familian ikasteko. Besteak beste, "Nor da?", "Partxisa", "Antzara", "Jenga", "Memory", "Tangram", "Ahateen arrantza" eta "beste batzuk ikusi ahal izango dira. Guztiak tamaina erraldoian!! Gainera, joko eksklusiboak aurkituko ditugu, adibidez Tantrix. Adin guztietako pertsonen adimena garatzen laguntzen duen jokia.



Eguna: Abuztuak 15, astelehena

JOLAS PARKEA

Ordua: 11:00-13:00 + 16:00-19:00

Arku-tiroa, pedaloak, ur-jolasak, futbolinak, eraikuntza-mahaiak, bola-jaurtigailuak eta ludoteka, jolas-parke handi bihurtutako plazan.



PUZGARRIAK

Ordua: 11:30-14:30 + 15:30-20:30

Salto egin, egin itzulipurdiak, eta ondo pasa puzgarrietan!!

ERRALDOI ETA BURUHANDIAK

Donostiako erraldoi eta buruhandiak, Irungo Ondarekoak eta Bidasoaldeakoak..

18:00etan Buruhandien jaitsiera Abuztuaren 31 kaletik eta irteera San Telmo museotik (Abuztuaren 31).

Ibilbidea: Abuztuaren 31, Narrika, Boulevard, Erregina Erregeordea, Zurriolako zubia, Zurriola pasealekua, Ramon y Cajal, Katalunia plaza, Ramon y Cajal, Zurriola pasealekua, Zurriolako zubia, Erregina Erregeordea, Boulevard, San Juan, Fermin Kalbeton, Narrika, Abuztuaren 31 (San Telmo museoa).

GAG STREET BOYS: "Yes we art"

Ordua: 20:30



"Yes we art!" Gag Street Boysen Boys-en lehen proiektua da, zuzeneko emanaldi bat egiteko prest dauden bi pertsona. Artisfyerren laguntza dute, diziplina artistiko guztiak biltzen dituen tresna. Ikuskizuna hasi da, baina arazo bat dago. Autozentsura eta lehen mailako artea izan behar zuena burugabekeria eta desastre bihurtzen dira. Gure beldurrak gainditzen ez baditugu, artea arriskuan egongo da, baina publikoari esker emanaldiak aurrera jarraituko du.

Eguna: Abuztuak 16, asteartea

PUZGARRIAK

Ordua: 15:30-20:30

Bost orduko dibertimendu ziurtatua.



IFK-CIF 02005411

Eguna: Abuztuak 17, asteazkena

FIRULETE ANTZERKIA: "Blue Blue, Bla Bla"

Ordua: 17:00

Urra Txakurra, Detektibe Zuhurra, kasu berri baten aurrean aurkitzen da:

Bizikleta Lapurra den Maurizio Katu Maltzurra harrapatu beharko du. Mauriziok hirian barna beldurra sorrarazi du, eta Urra Txakurraren misioa egoera honi buelta ematea izango da, eta berriz ere lasaitasun eta pakea ezarri beharko ditu. Hala ere, planteatu zaion lana ez da batere erraza izango; nahiz eta Urra Txakurraren metodoak onak izan, Maurizio Katu Maltzuraren trikimailuak ere halakoak izango dira, eta gauzak geroz eta gehiago konplikatu zaizkio detektibeari.



Ikuskizun berri honekin, Firulete Antzerkiaren helburua jazz musika haurrei hurbiltzea da, generoaren barruan elkarbizitzen duten estilo ezberdinak erakutsiz, jazz tradizioaletik bebop edota manouche-ra. Noski, beti kontuan izanik musika ikusikizun zabalago baten parte dela. Ikusikizun honek kitarra, tronpeta, pianoa eta perkusio rack bat aurkezten ditu eszenatokian, zuzeneko musika momentu ezberdinetan eskeiniz.

IMAGINACIONES NAI: "TIK TAK Denbora"

Ordua: 20:30

Nai beti presaka dabil korrika alde batetik bestera, baina gaur suerte oneko eguna da berarentzat: DENBORA TOPATU DU!

Atzerako kontaketa hasten da, tik-tak, tik-tak ...

Minutuak badoaz eta Nai publikoaren parte-hartzea beharko du gehien gustuko duen eilteko.

MALABAREAK

Ikuskizun honetan, denborarekin eta irudimenarekin edozein gauza lortu dezakegula ikasiko dugu, hori bai, gauza bakoitzak bere denbora behar du.

Ez kezkatu zerbait lehengoan ez baduzu lortzen: Berriro saiatu!

Ekinez, eta eginez ametsak egi bihurtuko dira



PUZGARRIAK

Ordua: 15:30-20:30

Arratsalde osoan etengabe salto egiteko!!

Eguna: Abuztuak 18, osteguna

HAURRENTZAKO ESKRIMA

Ordua: 17:00-20:00

Zatoz kirol zirrargarri hau probatzera edo praktikatzera.



GANSO& CÍA: “Mambo Bingo”

Ordua: 20:30

Betiko bingoa kartoi, bola, emozio, sari eta guzti, baina musika tropikalarekin eta 3 pertsonaien bitxikeriekin.
¡¡¡Zaporeaaaaa!!



PUZGARRIAK

Ordua: 15:30-20:30

Haurrentzako dibertsioa ziurtatuta, arratsalde osoan.

Eguna: Abuztuak 19, ostirala

HAURRENTZAKO ESKRIMA

Ordua: 17:00-20:00

Igor Otaegi eskrima maisuaren eskutik, kirol



MAITE GUEVARA: “Qué buen día”

Ordua: 20:30

Euria, elurra edo txingorra Martinarentzat beti izan daiteke egun ona. Martinak gaur erakutsiko digu amets egiten duenak eta begiak ondo irekitzen dituenak aukera amaigabeko mundu bat ikus dezakeela. Adin guztietako pertsonentzako clown ikuskizuna. (Hau ez da persona aspergarriak, tranpatiak eta jolasteko edo imajinatzeko gogorik ez dutenentzat). Jolastera etorri ez bagara, zer demoniotara etorri gara?



PUZGARRIAK

Ordua: 15:30-20:30

Saltoak, barreak, algarak, dibertimendua!!

Eguna: Abuztuak 20, larunbata

TOMAXEN ABENTURAK: "Bi ipuin"

Ordua: 17:00 – 18:00

Muxi eta Tomax liburutegira joan dira. Han bi ipuin aukeratuko dituzte: "Ahatetxo itsusia" eta "Txanogorritxo". Bi ipuin horiek bere erara antzezten saiatuko dira. Beti bezala, umorea, majia, kantak eta dantzak ez dira faltako.



IFK-CIF 02005411

PUZGARRIAK

Ordua: 11:30-14:30 + 15:30-20:30

Egun osoa ondo pasatzeko



Katalunia plazako espazioan hurrei zuzendutako jardueraz gain, publiko orokorrari zuzendutako beste jarduera batzuk ere izango ditugu.

Eguna: Abuztuak 16, asteartea

Ordua: 18:00

Kokapena: Katalunia plaza

PAELLA LEHIAKETA

Izena eman duten bikoteek paellak egingo dituzte, eta gaian aditua den epaimahai batek dastatuko ditu, onena zein den erabakitzeko.



Eguna: Abuztuak 18, osteguna

Ordua: 11:00-13:00

Kokapena: Katalunia plaza

NORDIC WALKING

Eguna modu osasungarrian hasteko, goraldian dagoen kirol hau eginez.



::: ESKULANGINTZA AZOKA ZULOAGA PLAZAN

Egunas: Abuztuak 13-20

Orduario: 11:00-14:00 eta 17:00-21:30

Kokapena: Zuloaga plaza

Aurten, Gabiltza artisau elkartearen eskutik eskainitako eskulangintza azoka lekuz aldatuko da eta Zuloaga plaza hartuko du. Bertan, artisautza askotariko 16 salmenta-postu izango ditugu.

TALLER	ACTIVIDAD
Ucar Bitxiak	Joyería
Hazi ta Hezi	Textil
Ziku Bitxiak	Joyería
Nativa	Joyería
E-Mendi	Cuero
Abian Skateboards	Madera
Aitor Bastarrika	Tindaketa naturala
IdoiaMusa	Bisutería CD y Ganchillo
Mouxuka	Textil
Baby Mundua	Textil
Arratibel	Artisaua
Karlos Irazu	Transformación de la madera
Hnos. Orta	Artesnia madera de olivo y boj
Feeling Good	Artesania textil
Fibras de Agua	Papelería
martina menke	Arte/artesania en seda

Gainera, hurrei eta helduei zuzendutako beste jarduera batzuk ere eskainiko dituzte.

Eguna: Abuztuak 14

Ordua: 19:00

KONTZERTUA: KEMARONTE (Espainiar gitarra bikotea)

Eguna: Abuztuak 15

Ordutegia: 11:30-13:30 eta 17:30-19:30

ERAKUSKETA-TAILERRA: TINDAKETA NATURALA ETA ECOPRINT Aitor Bastarrikaren eskutik

Eguna: Abuztuak 17

Ordutegia: 11:30-13:30 eta 17:30-19:30

ERAKUSKETA-TAILERRA: ZURA ERALDATZEA Karlos Irazuren eskutik

Eguna: Abuztuak 20

Ordutegia: 19:00-20:00

AZOKARI AGUR ETA AMAIERA EMATEKO EZUSTEKO EKITALDIA

IZENA EMATEA BEHAR DUTEN JARDUERAK

Aste Nagusiko jarduera batzuk parte-hartzaile kopuru mugatua dute, bermeak bete izateko. Gastronomiako jarduerak, kirol-jarduera batzuk (zozketa bidez hautatzen direnak) edo antolakuntza aldetik parte-hartzea sustatzen dutenak (su artifizialeko epaimahai gaztea).

Donostia Festak-ek antolatutako jardueretan izena emateko, www.astenagusia.donostiakultura.eus webgunera jo ezazu.

Webgune horretan bertan dago Donostia Festak-en elkarte laguntzaileek antolatutako jardueretan izena emateko beharrezko informazioa.



Hauek dira izena ematea behar duten jarduerak:

- ❖ Su Artifizialen Epaimahai Gaztea
- ❖ Belaunaldien arteko gastronomía-lehiaketa
- ❖ Legatza saltsa berdean gastronomía-lehiaketa
 - ❖ Arkume-menestra gastronomía-lehiaketa
 - ❖ Paella gastronomía-lehiaketa
 - ❖ Marmitakoa gastronomía-lehiaketa
 - ❖ Bizikleta Festa
 - ❖ Boleibol
 - ❖ Piraguismo
 - ❖ Bela estropaden zeharkaldia
- ❖ Bisita gidatuak Urumea ibaian
 - ❖ Arrantza lehiaketa
 - ❖ Sagueseko Backstage zozketa
- ❖ Mugikortasun urriko pertsonentzako erreserbatutako espazioa eskatzea Sagueseko eszenatokian.

ASTE NAGUSIKO FERIALAK

::: ASTE NAGUSIKO FERIALEK ZARATARIK GABEKO LAU ORDU IZANGO DITUZTE

Helburua: autismoaren espektroaren nahasteak dituzten adin txikiko eta helduek atrakzioez gozatzea.

Neurri hori hartzea erabaki da, pertsona horiek sentiberatasun handia baitute argi, zarata edo bolumen altuko soinuaren aurrean. Azokako musika edo atrakzioen sirena-hotsen kasua litzateke hori.

Aurten ere Donostiako Udalak neurri hau ezarriko du bere azoketan jai inklusiboagoak lortzeko.

Donostian gure festak urtez urte irisgarriagoak izatea nahi dugu, eta nahaste horiek dituzten haurrak dituzten familiek edo, helduek ere, bi egunez atrakzioez gozatzeko aukera izatea, lasaitasun osoz. Bolumen altuko musikaren moduko zaratak tortura izan daiteke autismoa daukan pertsonarentzat, antsietate-krisia, blokeoak, izu-krisiak eta, baita ere, mina eragin baitezakete.



Neurri hori "Asociación de Feriantes Autónomos de Euskadi" elkartearen laguntzari esker hartu ahal izan da.

Ekimena honako egun hauetan egingo da:

Egunak: Abuztuak 12, 17, 19 eta 22, 16:30etatik 18:30etara.

::: ASTE NAGUSIAN ZEHAR, PASEALEKU BERRIAN INSTALATUKO DEN FERIALEAN MUSIKA EZ SEXISTA ENTZUNGO DA

Helburua: pertsona orok festak askatasunean gozatzea, mezu desagoki, intolerante eta sexistengatik erasotuak sentitu gabe. Gizarte berdinzale baten alde lan egitea, pertsona guztien eskubideak errespetatu daitezen, baita festetan ere.

Emakundek "Beldur Barik 2022" kanpainan egindako lanaz baliatuta, eta Asociación de Feriantes Autónomos de Euskadi elkartearen laguntzaz, Pase Berrian instalatuko diren azokek mundu mailan ezagunak diren eta entzule askok ezagutzen dituzten artisten artean hautatutako 160 abestiko errepertorioa dute eta, baita festetan ere, berdintasun- eta errespetu-helburuak betetzen dituzte.

Hainbat abesti ezagunen artean, besteak beste, honako hauek entzun ahalko dira: Zuek (Nogen), Quiero ser libre (La Basu), New Rules (Dua Lipa), Libre (Izaro), Cicatrices (Skakeitan), Born this way (Lady Gaga), Morir matando (Tremenda jauria).

::: ASTE NAGUSIKO PASEALEKU BERRIKO FERIAK BI ATRAKZIO BERRI IZANGO DITU

Aurten Pasealeku Berriko azokek bi atrakzio mekaniko berri izango dituzte [Coco Bongo](#) eta [Mini Ave](#) ziur gazte eta helduen gozamenerako izango direla.

::: HELDUENTZAKO FERALAREN DATAK

- Jendearentzako irekiera: abuztuaren 12tik 22ra, biak barne.
- Bi egun herrikoi ezarri dira: Abuztuaren 12a eta 22a.

::: HELDUENTZAKO FERALAREN ORDUTEGIAK

- Abuztuak 12 ostirala: 17:00etatik a 22:00etara
- Abuztuaren 13tik 20ra: 16:30etatik hurrengo eguneko goizeko 04:00etara.
- Abuztuak 21 igandea: 16:30etatik hurrengo eguneko goizeko 01:00etara.
- Abuztuak 22 astelehena: 17:00etatik 22:00etara.

::: HELDUENTZAKO ATRAKZIOEN PREZIOAK

- Atrakzioen prezioa: gehienez 3,85 €.
- Atrakzio berezia edo berria: 4,40 €
- Egun herrikoiak (Abuztuak 12 eta 22): atrakzio bakoitzeko prezioa 2,20 €.

::: HAURRENTZAKO FERIA LA KOLDO MITXELENAN

Haurrentzako feriala Artzain Onaren plazan izango da Koldo Mitxelena Kultur Etxearen ondoan. Haurrentzako ferialak ez du musikarik izango.



IFK-CIF 020005411

::: HAURRENTZAKO FERALAREN DATAK

- Jendearentzako irekiera: abuztuaren 12tik 28ra, biak barne.
- Hiru egun herrikoi ezarri dira: Abuztuaren 12a, 22^a eta 28a.

::: HAURRENTZAKO FERALAREN ORDUTEGIAK

- Abuztuak 12 ostirala: 17:00etatik 22:00etara
- Abuztuaren 13tik 21era: 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik hurrengo eguneko 01:00etara
- Abuztuaren 22tik 28ra: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 22:00etara

::: HAURRENTZAKO ATRAKZIOEN PREZIOAK

- Atrakzioen prezioa: 2,75€. 6 fitxa 13,00 €-ko prezioan ordainduko dira.
- Egun herrikoiak (Abuztuak 12, 22 eta 28): atrakzio bakoitzeko prezioa 1,65 €.

ASTE NAGUSIAREN HAINBAT ZIFRA

Festarako espazioak: hiriko **30** espazio ezberdinek jarduerak izango dituzte Aste Nagusian.

Jarduerak: **399**


Programan aktiboki parte hartzen duten elkarteak: **42**

Aste Nagusia posible izan dadin egun bakoitzean lan egiten duten pertsonak: **2.188** hoietatik:

- Artistak, musikariak, dantzariak, pailazoak, abeslariak, aktoreak ... **1.645**
- Teknikariak, sarbideen kontrola, brigadak, trafikoa, agertokietako arduradunak, muntatzaileak, iturginak, argiketariak... **445**
- Egunerokoan laguntzen duten boluntarioak: **98**

Haur-familientzako jarduerak: Formatu ezberdineko **34** jarduera

Kirol jarduerak: Hainbat kirol barne hartzen dituzten **34** jarduera



ASTE NAGUSI JASANGARRIA, IRISGARRIA, SEGURUA...

::: JASANGARRITASUNA

Beste behin ere, Donostia Festak ekimenak beste bultzada bat emango dio iraunkortasunari, gure planeta jaietan ere zaintzeko kontzientziazio-ekintzak txertatuz.

Hauek izango dira ekintza nagusiak:

- 1) Kursaaaleko eta Sagueseko terrazetako food truckek eta lehiaketa gastronomikoek nahikoa edalontzi berrerabilgarri izango dituzte, eta bide publikoko hondakinak nabarmen murrizten laguntzea espero dugu. Gainera, beirazko edalontziak erabiltzeagatik gerta daitezkeen ebakiak ekidingo dira.
- 2) Coca-Colaren laguntzarekin, urpekaritza-jarduera egingo da Nautikoan, eta kaiko lehen kai-muturraren inguruko itsas hondoa garbituko da. Bildutako arrastoak Nautikoko albo bateko terrazan instalatuko den karpan erakutsiko dira.
- 3) Edari edota janaria kontsumi daitezkeen jarduerak dituzten espazioetan birziklapen-educiontziaak jarriko dira.



Gainera, aurtan bi kontzientziazio-jarduera berri egingo ditugu:

- 1) Abuztuaren 17, 18 eta 19an jai giroan eta modu dibertigarrian, Arrauningean laguntzarekin parte hartu nahi duten pertsona guztiak kanoan irtengo dira Urumea ibaiaren zati bat garbitzera (Jose Antonio Agirre zubiaren eta Astiñene baserriaren artean). Behin lehorrean gaudela, trikitixaren doinua entzunez merezitako hamaiketakoarekin partekatuko dugu bizipena.



- 2) ItsaSOSe egindako proposamena kontuan hartuta, abuztuaren 19an "Urgull txukun" jarduera gauzatuko da. Damen Bateriaren eremua garbituko da eta hondakinak jasoko dira Ecolimpieza Ciudadanaren laguntzarekin. Parte hartzeko hitzordua Aquariumean izango da 11:00etan.

Aste Nagusian iraunkortasunaren alde egiten ditugun ekintza orokorrak honako hauetan laburbil ditzakegu:

.- Edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea: eros ezazu edalontzia euro baten truke, eta edalontzia itzultzean itzuliko dizugu euroa. Hala, bide publikoan hondakin kopurua murriztea lortuko dugu, eta festetan gure kaleetan garbitasuna mantentzen lagunduko du.

.- Aste Nagusiko gastronomia-espazio guztietan erabilitako olio biltzea, birziklatu eta beste erabilera batzuetara bideratzeko. Ekintza horri esker, urak tratatzeko sare publikora sustantzia kutsagarriak isurtzea ekidingo da.

.- Gastronomia-espazioetako erabiltzaileei sortzen dituzten hondakinak (beira, papera, organikoa...) birziklatzeko behar dituzten elementuak emango zaizkie.

.- Kontratututako energia elektrikoa % 100 berriztagarria den energia-iturrietatik dator.

.- Komun publiko kopurua handituko da festetan zehar, eta festa-espazioetan barna 72 komun kimiko jarriko dira, guztira.

.- Donostiako Aste Nagusian egingo diren bost gastronomia-lehiaketetan prozesatu gabeko eta gertuko lehengaiak erabiliko dira, eta leloa "Sukaldatu J&J: jangarri eta jasangarri" izango da. Gainera, aurtan lehiaketa bakoitzeko platerak egiteko aukeratutako osagaiak ahalik eta gehien aprobetxatzea hartuko da kontuan bereziki.

.- Eta, gainera, Aste Nagusiak jarduerak zabaltzeko euskarri berriak bilatzen ditu, gero eta paper gutxiago erabiltzeko! Programa kontsulta daiteke www.astenagusia.donostiakultura.eus webgunean.

::: IRISGARRITASUNA

- .- Aste Nagusiko festa-espazio guztietara iris daiteke garraio publiko bidez, bizikleta bidez, edo oinez.
- .- Zerbitzu bereziak ere egongo dira, programatutako ekimenak amaituta, etxera autobus edo aldiriko tren bidez itzultzeko (Dbus zerbitzu bereziak eta Euskotren).
- .- Sagueseko eszenatokiak erreserbatutako espazio bat izango du mugikortasun urria duten pertsonak kontzertuetara joateko.
- .- Ikuskizunak eskainiko diren espazio guztietan beharrian ezberdinak dituzten pertsonak artatzeko erreserbak daude.
- .- Atrakzio-guneek zaratarik gabeko bi egun izango dituzte (ikus ferialen inguruko atala)



::: ETA GAINERA

.- Gure Udaleko Berdintasun Sailaren kanpainarekin bat egin dugu, eta Donostia Festak-en zuzendaritzapean Aste Nagusian lan egiten duten pertsona guztiek jarduteko protokoloak ezagutzeko ahalegin berezia egingo da.

.- Gure jardueretan euskara hizkuntza nagusia izatea sustatuko dugu, bereziki haur eta gazteei zuzendutako jardueretan eta Euskaraldia kanpaina babestuko dugu hainbat jai-agertokitan, aurten identifikatuko dugun abestiaren berri emanez.

.- Bisitariekin enpatizatzeko gure jarduerak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez aurkeztuko ditugu.

Ondoko hauei esker aste nagusiaz gozatzen dugu:
Disfrutamos de la semana grande gracias a:



18/70



Baita ere laguntzen dute:
También colaboran:

